

ZTB Nazioarteko mintegia



Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza politikak trantsizio sozio-ekologikoaren aurrean eraldaketa eta garapenaren motor gisa

Agirre Lehendakaria Centerrek (Euskampus Fundazioa) koordinatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) gidatuta, **Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) politika publikoen bilakaera aztertzeko ikerketa** abiatu dute, autogobernuaren berrezarpenetik gaur egunera arteko aldia hartuta.

Eusko Jaurlaritzako Zientzia eta Berrikuntza Sailburuordetzak sustatutako ekimen honen helburua da Euskadiko ZTB sistemaren ibilbidea **modu kolaboratiboan ulertzea**, hamarkada hauetan metatutako ikaskuntza nagusiak identifikatzea eta egungo estrategia indartzen laguntzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta nazioarteko posizionamendua sendotzeko.

Orain arte, **150 elkarrizketa sakon baino gehiago** egin dira administrazio publikoko, sistema zientifiko-teknologikoko, enpresa-sareko eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekosistemako beste eragile garrantzitsu batzuetako ordezkariekin.

Hausnarketa hau **nazioarteko esperientzien kontrastearekin aberasteko**, Agirre Lehendakaria Centerrek jarraian aurkeztu den nazioarteko mintegia antolatu du.

MINTEGIAREN HELBURUAK

- Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) sistemari buruzko ikerketaren eta entzute-prozesuaren **lehen ondorioak partekatu** eta kontrastatzea.
- **Euskadiko kasuaren analisisan sakontzea**, nazioarteko esperientzia konparatuak aurkeztu eta eztabaidatuz.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza politiken diseinu, kudeaketa eta etengabeko egokitzapenerako **ikuspegiak, metodologiak eta tresnak aztertzea**.
- Ikuspegi horiek Euskadiko ZTB sistemaren testuinguruan duten aplikagarritasunari buruzko **lehen hausnarketa kolektiborako gunea** sortzea.
- Euskadiko ZTB politikak indartzen eta etorkizuneko erronkei aurre egiten lagunduko duten **ikuspegiak, ikaskuntzak eta aukerak identifikatzea**.

AGENDA

09:00 - 09:10 | 0. Blokea. Ongi etorria eta irekiera instituzionala (10')

Aurkezpena eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren hitzartzea

Azken 50 urteotan, Euskadik bere inguruko lurralde eta herrialde askok baino eraldaketa sozioekonomiko inklusiboagoa lortu du. Euskadiko ZTBk (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza) politikak funtsezkoak izan dira eraldaketa hori ulertzeko. *Nola lagundu dezakete ZTB politikek berrikuntza inklusiboaren eredu hori mantentzen eta eskalatzen?*

09:10 - 10:00 | 1. Blokea. Ikerketa: ikuspegia, metodologia eta lehen emaitzak (50')

Ikerketak aukera ematen du sistemako eragile nagusiek —administrazioek, zientzia- eta teknologia-sistemek, ekoizpen-sareek eta gizarteak— politikak nola hauteman dituzten sakon ulertzeko. Ariketa honen bidez, eragileek sistemari ematen dioten balioa aztertu, tentsioak eta kontraesanak identifikatu, adostasunak antzeman, eta narratiba horiek denboran zehar izan duten eragina ebaluatu ahal izango da.

- Ikerketaren testuingurua eta helburuak
- Ikuspegi metodologikoa
- Lehen emaitzak eta sortzen ari diren ikaskuntzak
- Azaldutako edukiei buruzko argibide eta zehaztapenen txanda

10:00 - 11:00 | 2. Blokea. Nazioarteko esperientziak (60')

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza politiketako nazioarteko esperientziak aurkeztuko dira, Euskadiko kasuari buruzko hausnarketa aberastu dezaketen ikaskuntzak, erronkak eta konparaziorako elementuak identifikatzeko helburuarekin.

- **Manchester hiri-eskualdeko kasua: Elvira Uyarra**, Berrikuntza Ikasketetako irakaslea, Alliance Manchester Business School-en (Manchesterko Unibertsitatea). (20')
- **Kataluniako kasua: Joan Gómez Pallarès**, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedraduna eta Kataluniako Generalitateko Ikerketa eta Unibertsitate Sailaren Ikerketako zuzendari nagusi ohia. (12')
- **Galesko kasua: Rick Delbridge**, Antolakuntza-analisi irakaslea Cardiff Business School-en eta Centre for Innovation Policy Research (CIPR) zentroko zuzendarikidea. (20')

11:00 - 11:15 | Atsedenaaldia**11:15 - 13:15 | 3. Blokea. Elkarrietzeta eta analisi konparatua: euskal kasurako ikaskuntzak eta etorkizuneko erronkak (120')**

Espazio honetan, jardunaldian zehar sortutako ideia nagusiak jaso eta kontrastatuko dira.

Blokearen hasieran, analisi konparatua egiteko proposatutako ariketa eta hausnarketa- galdera nagusiak aurkeztuko dira.

Ondoren, hizlarien eta parte-hartzaileen arteko elkarrietzeta moderatua egingo da, aurkeztutako nazioarteko esperientzietatik eratorritako ikaskuntza eta ondorio nagusietan sakontzeko.

Amaitzeko, partekatutako ikaskuntzetan eta nazioarteko esperientzietan oinarrituta, Euskadiko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza- politiken etorkizuneko erronka eta aukerei buruzko hausnarketa kolektiboa egingo da. Bereziki, aztertuko da nola indartu politika horiek datozen hamarkadetako eraldaketa sozioekologikoetan eta gizartearen ongizatean egin dezaketen ekarpena.

13:15 - 13:30 | 4. blokea. Ondorio nagusiak eta mintegiaren amaiera (15')

Ikaskuntza nagusien sintesia eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza politiken etorkizuneko erronka eta aukerei buruzko hausnarketa kolektiboa.

13:30etik aurrera | Mokadutxoa

Lekua: Axular aretoa (1.solairua)

KONFIRMATUEN ZERREND

Adolfo Morais, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea, Eusko Jaurlaritza.

Ainara Basurko, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundia.

Aitziber López Cortajarena, zuzendari zientifikoa eta ikertzaile nagusia, CIC biomaGUNE.

Alaitz Landaluze, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitateko zuzendaria, Innobasque- Berrikuntzaren Euskal Agentzia.

Amaia Esquisabel, Zientzia Politikako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Ana Zubiaga, EHUKo katedraduna eta Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiako presidentea.

Edurne Magro, ikertzaile seniorra, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua, eta irakaslea Deusto Business Schoolen.

Elvira Uyarra, berrikuntza-ikasketetako irakaslea, Alliance Manchester Business Schoolen, eta Manchester Institute of Innovation Research institutuko zuzendaria, Manchesterreko Unibertsitatea.

Eva Arrilucea, Teknologia eta Berrikuntza Politiken Estrategiako zuzendaria, TECNALIA.

Fermín Cerezo, Berrikuntza Zerbitzuko burua, Valentziako Udala.

Jon Altuna, Errektoreorde akademikoa, Mondragon Unibertsitatea.

Jon Gurrutxaga, Berrikuntza eta Internazionalizazioko zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Jordi Campàs, zuzendari-kidea, Euskampus Fundazioa.

Juan José Unzilla, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko aholkularia.

Maialen Agirre, Berrikuntzako zuzendaria, Eusko Jaurlaritza.

Marisa Arriola, zuzendari kudeatzailea, BIC Gipuzkoa.

Michał Miedzinski, ekonomia eta politika arloko ikertzaile seniorra, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratuan (JRC).

Mikel Landabaso, Ekonomia Bidezko eta Jasangarrirako zuzendaria eta Sevillako egoitzaren arduraduna, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratua (JRC).

Ricardo Bueno, zuzendaria, Basque Research and Technology Alliance (BRTA).

Ricardo Díez, zuzendaria, Donostia International Physics Center (DIPC).

Rick Delbridge, antolaketa analisiaren irakaslea Cardiff Business Schoolen, eta Centre for Innovation Policy Research (CIPR) zentroko zuzendarikidea, Cardiffeko Unibertsitatea.

Rogelio Pozo, zuzendari nagusia, AZTI.

Parte-hartzaileak



ADOLFO MORAIS

Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea, Eusko Jaurlaritza.

Matematikaria da, eta Matematika Aplikatuko irakaslea EHUKo Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan. Ibilbide luzea du unibertsitate-kudeaketan, baita zientzia- eta ikerketa-politiken arloan ere. Eusko Jaurlaritzan hainbat erantzukizun izan ditu, unibertsitateen, ikerketaren eta zientzia-sistemaren garapenarekin lotuta; besteak beste, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuorde (2015-2025) eta, 2025eko urtariletik, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuorde izan da.



AINARA BASURKO

Ekonomia Sustapeneko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundia.

Ainara Basurko Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko foru diputatua da. Zuzenbidean lizentziatua da (espezialitate juridiko-ekonomikoa), Deustuko Unibertsitatean, eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako MBA du, unibertsitate berean. Aholkularitza estrategikoan, tokiko garapenean eta enpresa-lehiakortasunaren sustapenean esperientzia zabala du; bereziki ekintzailatzaren, berrikuntzaren eta lurralde-garapenaren arloetan. 2019tik dago karguan, eta aurretik BEAZeko zuzendari nagusia izan zen, baita Azaro Fundazioko zuzendaria eta Lea Artibaiko Garapen Agentziako kudeatzailea ere.



AITZIBER LÓPEZ CORTAJARENA

Zuzendari zientifikoa eta ikertzaile nagusia, CIC biomaGUNE

Aitziber López Cortajarena CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoa da, Ikerbasque ikerketa-irakaslea eta Nanoteknologia Biomolekularreko taldeko ikertzaile nagusia. Biokimikan doktorea da EHUn; proteinen diseinuan eta nanoegitura biofuntzionalen garapenean oinarritzen da bere ikerketa. Bere lanak biomedikuntzan, diagnostikoan eta terapia aurreratueta aplikazioak dituzten sistema biomolekular berriak garatzea du helburu.

Parte-hartzaileak



ALAITZ LANDALUZE

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Politiken Unitateko zuzendaria, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia.

Alaitz Landaluze Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Politiken Unitateko zuzendaria da. Esperientzia zabala du berrikuntza-politiken diseinuan, azterketan eta jarraipenean, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen dinamizazioan ere. Bere lana Euskadiren berrikuntza-gaitasuna indartzera eta politika publikoak Europako joera eta esparruekin lerrokatuz bideratuta dago.



AMAIA ESQUISABEL

Politika Zientifikoko zuzendaria, Eusko Jaurlaritzak.

Amaia Esquisabel Eusko Jaurlaritzako Politika Zientifikoko zuzendaria da. EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientzien Saileko irakasle titularra da, eta esperientzia zabala du ikerketaren eta politika zientifikoaren kudeaketan. 2015etik hainbat ardura izan ditu Eusko Jaurlaritzan, Euskadiko ikerketa-sistema, zientzia-programak eta ikertzaileen garapena sustatzeko.



ANA ZUBIAGA

EHUko katedraduna eta Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiako presidentea.

Ana Zubiaga EHUko Genetikako katedraduna eta Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiako presidentea da. Biologia molekularren eta minbiziaren genetikaren arloan garatu du bere ikerketa-ibilbidea, bereziki zelulen ugalketa eta tumoreen garapena erregulatzen dituzten mekanismoak aztertuz. Ikerketaz eta irakaskuntzaz gain, zientziaren dibulgazioan eta euskarak zientzian duen presentzia sustatzen lan nabarmena egin du.

Parte-hartzaileak



EDURNE MAGRO

Ikertzaile seniorra, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua; irakaslea, Deusto Business School.

Edurne Magro Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile seniorra eta Deusto Business Schooleko irakaslea da. Enpresa Lehiakortasunean eta Ekonomia Garapenean doktorea da Deustuko Unibertsitatean, eta Berrikuntzaren eta Teknologiaren Kudeaketako masterra du. Bere ikerketa berrikuntza-politiken ebaluazioan, eskualdeko berrikuntza-sistemetan eta politikek lurraldeen eraldaketan eta lehiakortasunean duten eginkizunean oinarritzen da.



ELVIRA UYARRA

Berrikuntza Ikasketetako irakaslea, Alliance Manchester Business School; Manchester Institute of Innovation Research-eko zuzendaria, Manchesterreko Unibertsitatea.

Elvira Uyarra Innovation Studies-eko katedraduna da Alliance Manchester Business School-en (Manchesterreko Unibertsitatea) eta Manchester Institute of Innovation Research-eko zuzendaria. Ekonomialaria da (Euskal Herriko Unibertsitatea), eta bere ikerketa berrikuntzaren, politika publikoen eta eskualde-garapenaren arteko harremanean oinarritzen da, arreta berezia jarritz misioetara bideratutako berrikuntza-politiketan, unibertsitateek eskualde-garapenean duten eginkizunean eta kontratazio publikoa berrikuntza-tresna gisa erabiltzean.



EVA ARRILUCEA

Teknologia eta Berrikuntza Politiken Estrategiako zuzendaria, TECNALIA.

Eva Arrilucea berrikuntza eta teknologia politiketarako estrategia zuzendaria da TECNALIAN. Ekonomian doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, 20 urte baino gehiagoko esperientzia du aholkularitza estrategikoan eta berrikuntza-politika publikoetan, bai European, bai Latinoamerikan, zein Ekialde hurbilean. Bere lana batez ere berrikuntza-politiketan, eraldaketa teknologikoan eta zentro teknologikoek gizarte-trantsizio handietan duten eginkizunean oinarritzen da.

Parte-hartzaileak



FERMÍN CEREZO

Berrikuntza Zerbitzuko burua, Valentziako Udala.

Fermín Cerezo Valentziako Udaleko Berrikuntza Zerbitzuko burua da eta ibilbide luzea du kudeaketa publikoaren berrikuntzan eta modernizazioan. Missions València 2030 gidatu du, misioetara bideratutako berrikuntza-estrategia aitzindaria, Valentzia Europako erreferente gisa kokatu zuena, eta gaur egun Valentziako Sandbox Urbanoa koordinatzen du, hirian berrikuntza bultzatzeko esperimentazio-gune bat. Era berean, sektore publikoko profesionalen irakaskuntza- eta prestakuntza-jarduera nabarmena garatu du.



JON ALTUNA

Errektoreorde akademikoa, Mondragon Unibertsitatea.

Jon Altuna Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa da 2011tik. Industria Elektronikaren ingeniaria da, eta Edinburgoko Unibertsitatean lortu zuen doktoregoa. Seinaleen Tratamenduaren eta Komunikazioen arloan aritu da irakasle eta ikertzaile. Bere ibilbidea, batez ere, hezkuntza-berrikuntzari, prestakuntza dualari eta unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzari lotuta dago. Halaber, EURASHERen (Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Europako Elkartearen) presidenteordea da, eta parte hartzen du EU4DUAL Europako Unibertsitate Aliantzaren garapenean, Mondragon Unibertsitateak gidatutako proiektuan.



JON GURRUTXAGA

Berrikuntza eta Internazionalizazioko zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Jon Gurrutxaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza zuzendaria da. Industria-ingeniaria eta MBA Executive-duna, bere ibilbide profesionalaren zati handi bat CAFen garatu du, non garapen korporatiboaren eta negozio berrien arlotik enpresa-dibertsifikazioan, ekintzailetzan, startupen erakarpenean eta negozio-eredu berrietan lan egin duen, batez ere energia, mugikortasun eta fabrikazio aurreratuko arloetan. Aldundian sartu zenetik, Gipuzkoako ehun ekonomikoaren berrikuntza eta eraldaketa bultzatzen lan egiten du.

Parte-hartzaileak



JORDI CAMPÀS

Zuzendari-kidea, Euskampus Fundazioa.

Jordi Campàs Euskampus Fundazioko zuzendari-kidea da eta Ekonomian doktorea Toulouseko Gizarte Zientzien Unibertsitatean. Bere ibilbidea arlo akademiko eta instituzionalean garatu ondoren, lehenik Ekonomia zuzendaria eta ondoren Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Europako Funtsen sailburuordea izan zen. Euskampusen zientziaren, euskal unibertsitate sistemaren eta oinarri zientifikoko berrikuntzaren bultzadan lan egiten du, baita Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campuseko garapenean ere.



JUAN JOSÉ UNZILLA

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko aholkularia, Eusko Jaurlaritza.

Juan José Unzilla Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko aholkularia da. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakaslea eta ingeniari doktorea da, ibilbide akademiko zabala du, baita unibertsitate kudeaketan ere. Beste kargu batzuen artean, EHUKo Irakasleen, Koordinazioaren eta Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren errektoreordea izan da. Bere ikerketa-jarduera softwareak definitutako sareetan, sareko funtzioen birtualizazioan, zibersegurtasunean eta blockchain teknologien industria 4.0 aplikazioan oinarritzen da. Keynetic zibersegurtasuneko spin-off-aren sortzaileetako bat ere bada.



MAIALEN AGIRRE

Berrikuntzako zuzendaria, Eusko Jaurlaritza.

Maialen Agirre Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzako zuzendaria da 2025az geroztik. Aurretik, 2019tik 2025era, ikerketa-arloko arduraduna izan zen Hezkuntza eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailetan, eta 2010etik ikerketa-programen kudeaketan aritu da. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da EHUn, Nazioarteko Ekonomia eta Garapena espezialitatean, eta bere egungo lanak Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren garapena eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren koordinazioa eta nazioartekotzea ditu ardatz.

Parte-hartzaileak



MARISA ARRIOLA

Zuzendari kudeatzailea, BIC Gipuzkoa.

Marisa Arriola BIC Gipuzkoa Berrilaneke zuzendari kudeatzailea da, eta 1998tik ari da erakundearen buru, Gipuzkoako ekintzailetza berritzaile eta teknologikoa bultzatzen. Geografia eta Historiako lizentziaduna da Salamancako Unibertsitatean, Pertsonen Zuzendaritzako masterra egin zuen EHUn eta IESE Business Schoolen Zuzendaritza Nagusiko Programa egin zuen. Unibertsitate-irakaskuntzan ere aritu da, eta 2024an Gipuzkoako Urrezko Domina jaso zuen ekintzailetzari egindako ekarpenagatik eta gizartearekiko konpromisoagatik.



MICHAL MIEDZINSKI

Ekonomia eta politika arloko ikertzailea, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratua (JRC).

Michal Miedzinski politika-ikertzailea eta talde-burua da Europako Batzordeko JRCren Innovation Policies and Economic Impact unitatean. Bere lana berrikuntza eraldatzaileko politiketan, lurraldean oinarritutako estrategietan eta gizarte- eta ingurumen-erronkei erantzuteko politika publikoen diseinu, esperientazio, monitorizazio eta ebaluazioan oinarritzen da. JRCra iritsi aurretik University College Londonen ikertzaile eta Technopolis Groupen Green Economy Lead izan zen, European Eco-Innovation Observatoryren sortzaileetako bat izan zen, eta Planning arloko doktoretza du Manchesterreko Unibertsitatean.



MIKEL LANDABASO

Ekonomia Bidezko eta Jasangarrirako zuzendaria eta Sevillako egoitzaren arduraduna, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratua (JRC).

Mikel Landabaso Europako Batzordeko JRCren Ekonomia Bidezko eta Jasangarrirako zuzendaria da, eta Sevillako egoitza kudeatzen du. Europako Batzordean dihardu 1990etik, eta, besteak beste, DG COMMeko Estrategia eta Komunikazio Korporatiboko zuzendaria, Eskualde Politikako komisarioaren kabineteburua eta DG REGIOko hainbat unitatetako burua izan da; lehenago SPRIko Ikerketa Departamentua zuzendu zuen. Ekonomian doktorea da EHUn eta Cardiffeko Unibertsitateko ohorezko irakasle bisitaria da; bere ibilbidea eskualde-garapenean, berrikuntza-politiketan eta politika publikoen diseinuan zentratu da.

Parte-hartzaileak



RICARDO BUENO

Zuzendari nagusia, Basque Research and Technology Alliance (BRTA).

Ricardo Bueno BRTAko zuzendari nagusia da erakundea 2019an sortu zenetik. Industria Ingeniaritzan doktorea da Nafarroako Unibertsitatean, eta ibilbide luzea egin du ikerketa, fabrikazio aurreratu eta teknologia-transferentziaren arloetan: bi hamarkada baino gehiagoz aritu zen Fatroniken, eta ondoren Tecnalian hainbat zuzendaritza-erantzukizun izan zituen, besteak beste Fabrikazio Aurreratuko arloko zuzendari gisa. EIT Manufacturingen ere zuzendaritza-lanak egin ditu, eta BRTAren bidez Euskadiko ikerketa-eta teknologia-zentroen lankidetzeta eta ezagutza industriara eta gizartera transferitzea sustatzen ditu.



RICARDO DÍEZ

Zuzendaria, Donostia International Physics Center (DIPC).

Ricardo Díez DIPCko zuzendaria da 2013az geroztik eta Ikerbasque Research Professor da. Fisikan doktorea da EHUn, eta bere ikerketa nagusiki materia kondentsatuaren fisika teorikoan eta solido, gainazal eta nanoegituretako dinamika elektronikoan oinarritzen da. Bordeleko Unibertsitatean, Kaliforniako Lawrence Berkeley National Laboratoryn eta CSIC-UPV/EHU Materialen Fisika Zentroan egin du ikerketa-ibilbidea.



RICK DELBRIDGE

Antolaketa Analisiaren irakaslea, Cardiff Business School, eta Centre for Innovation Policy Research (CIPR) zentroko koordinatzailekidea, Cardiffeko Unibertsitatea.

Rick Delbridge Antolaketa Analisiaren irakaslea da Cardiff Business Schoolen eta Centre for Innovation Policy Research (CIPR) zentroko koordinatzailekidea. Bere ikerketak berrikuntzaren kudeaketa eta antolaketa, lan-harremanak eta Japoniako kudeaketa-praktikak aztertzen ditu. 2012tik 2019ra Cardiffeko Unibertsitateko Research, Innovation and Enterprise arloko dekanoa izan zen eta Social Science Research Park (SPARK) proiektuaren garapena gidatu zuen; 2025ean, gainera, Erresuma Batuko REF 2029ko Business and Management Studies azpipaneleko presidente izendatu zuten.

Parte-hartzaileak



ROGELIO POZO

Zuzendari nagusia, AZTI.

Rogelio Pozo AZTIko zuzendari nagusia da eta 2004tik dago erakundearen buru. Zientzietan doktorea da, eta ibilbide zabala du ikerketa, berrikuntza eta kudeaketa zientifiko-teknologikoan, bereziki elikaduraren eta itsas ingurunearen esparruetan. Bere jarduera zientifikoak ehun argitalpen baino gehiago, hainbat patente eta doktorego-tesiren zuzendaritza biltzen ditu, eta unibertsitateko eta graduondoko irakaskuntzan ere esperientzia zabala du.